

BESTELAKO XEDAPENAK

OSASUN SAILA

30

EBAZPENA, 2025eko abenduaren 11koa, farmaziako zuzendariarena, Arabako Haranak II farmazia-eskualdeko mugakide diren farmazia-eskualdeetan farmazia-bulegoa duten farmazialariei Zambrana udalerrian (Araba) botikategia sortzeko baimena eskatzeko aukera eskaintzen diena.

Zambrana udalerrian, Administrazio batzarrak eskatuta, botikategia jartzeko eskabidea aztertu da. Botikategia jartzeko honako hauek hartuko dira kontuan:

GERTAKARIAK

Lehenengoa.– Zambranako Administrazio Batzarrak, 2025eko abuztuaren 21ean egindako ohiko bilkuran, aho batez onartu zuen Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailari eskatzea has dezala botikategi bat instalatzeko prozedura. Eskabidearekin batera, honako agiri hauek aurkeztu dira: Administrazio Batzarrak instalazioa egiteko lokala baduela egiaztatzen duen agiria, lokalaren ezaugarriak eta ekipamendua, eta farmaziako bulegoarekin lotura duen botikariak erabili ahal izateko baldintzak.

Bigarrena.– Zambranako udalerrria, zeinak Zambranako kontzejua hartzen baitu, Arabako Haranak II (1.C.AR.07) izeneko C motako farmazia-eremu batean dago, eta honako udalerrri hauek hartzen ditu: Armiñón, Berantevilla, Urizaharra, Erriberabeitia, Zambrana eta Lagrán udalerriko Pipaón kontzejua.

Hirugarrena.– 2025eko azaroaren 5ean, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian (EHAA, 213. zk.) argitaratu zen Farmaziako zuzendariaren ebazpena, Zambrana udalerrian (Araba) botikategia sortzeko baimena emateko prozedurari hasiera ematekoa. Ebazpen horretan hilabeteko epea ematen zaie Arabako Haranak II farmazia-eskualdean kokaturik dauden farmazia-bulegoetako titularrei, nahi izanez gero, Zambrana udalerrian botikategia sortzeko baimen-eskabidea aurkez zezaten.

Laugarrena.– Hilabeteko epe hori igaro da, eta Arabako Haranak II farmazia-eskualdeko farmaziako titularrek ez dute horri buruzko eskaerarik aurkeztu.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.– Botikategien prozedura ezartzen duen otsailaren 21eko 26/2023 Dekretuan ezarritakoaren arabera, Osasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 29ko 319/2024 Dekretuaren 16. artikuluekin lotuta, Farmazia Zuzendaritzari dagokio eskaera hori ebaztea.

Bigarrena.– Euskal Autonomia Erkidegoko Ordenazio Farmazeutikorako ekainaren 17ko 11/1994 Legearen 25.1 artikulua aurreikusten duenez, farmazia-arreta egokia jasotzen ez duten 800 biztanletik beherako udalerrietan, botikategiaren bidez bete daiteke.

Ildo horretan, otsailaren 21eko 26/2023 Dekretuak botikategien baimentze-prozedura, baldintzak eta funtzionamendu-araubidea arautzen ditu.

Hirugarrena.– Dekretu horretako 13.5 artikulua honako hau ezartzen du: farmazia-eskualde mugakideetan kokatutako farmazia-bulegoen titularrei soilik eskaini ahal izango zaiela eratzeko

baimen hori, baldin eta botikategia instalatu behar den farmazia-eskualdeko farmazia-bulegoko titularren batek ere ez badu baimen hori sortzeko baimen hori eskatzen.

Horixe gertatu da Zuzendaritza honek 2025eko azaroaren 5eko EHAA-n argitaratutako ebazpenaren bidez emandako hilabeteko epea igaro ondoren.

Laugarrena.– Osasun-sailburuaren 2019ko ekainaren 21eko Aginduaren bidez farmazia-eskualdeak zehaztu eta sailkatu dira, horietako bakoitzean dauden udalerriak adieraziz. Bada, agindu horretan ezarritakoarekin bat etorriz, honako hauek dira Arabako Haranak II farmazia-eskualdearen alboko farmazia-eskualdeak:

1.C.RA.03 - Arabako Errioxa farmazia-eskualdea.

1.C.AR.04 - Iparra-Zuia farmazia-eskualdea.

1.C.AR.05 - Arabako Bailara I farmazia-eskualdea.

1.C.AR.08 - Arabako Mendiak farmazia-eskualdea.

Horregatik guztiagatik, aipatutako arauak eta oro har aplikagarriak diren gainerakoak ikusita, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Arabako Haranak II farmazia-eskualdearen mugakide diren farmazia-eskualdetako farmazia-bulegoetako farmazialari titularrei («zuzenbideko oinarrietako» laugarren puntuan zehaztutakoak) botikategia sortzeko baimen-eskaera aurkezteko aukera ematea. Deialdi horrek honako ezaugarri hauek izango ditu:

Instalazioaren udalerria: Zambrana (Araba).

Farmazia-eskualdea: c motakoa, Arabako Haranak II izena duena.

Lokala: Solana kalea, 8, 01212 Zambrana, Araba.

Beharrezko dokumentazioa: otsailaren 21eko 26/2023 Dekretuaren 12.3 artikuluan aurreikusitakoa.

Bigarrena.– Botikategia sortzeko baimen-eskabideak aurkezteko epea hilabetekoa izango da, ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunetik hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko abenduaren 11.

Farmaziako zuzendaria,
JON IÑAKI BETOLAZA SAN MIGUEL.